



BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA

# AIURRI

1997ko ekainaren 27a. 61. Zenbakia. Doan banatzen da.



**Santiago Bidea,  
magiaz beteriko  
800 kilometro**

## KALEBERRI

*medikuntza zentrua*

**Gida-agiri  
eta arma baimenatarako  
ikerketak!**

**ORDUTEGIA:**

Astelehenetik ostiralera: 18:00tik 20:00etara.

Larunbatetan: 12:00etatik 14:00etara.



Kale Berria, 8 bajua  
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)  
Telf.-Faxa:943-592957

# ASTEASU

## 1997urteko

## Sanpedroak

### Ekainak 26, Osteguna

20:30etan: **JAIEN HASIERA.**

Txupinazoa  
Sorginaren Jeitxiera  
Kalejira  
Buruhaundiak

Gauean: **Bakarne, Andoni Ezkerra eta Aitor Landa ERROMERIA, DANTZALDIA**

### Ekainak 27, Ostirala KOADRILEN EGUNA

Eguerdian: **KOADRILEN POTEOA, ALGARA**  
Txarangarekin

14:00etan: **KOADRILEN BAZKARIA** Herriko  
Frontoian

23:00etan: **BERTSO JAIALDIA:** Xabier Amuriza,  
Iñaki Murua, Xabier Euzkitze, Unai  
Iturriaga Gai jartzailea: Joxepa  
Madariaga.

Ondoren: **TRAKETS** Taldearekin **DANTZALDIA**

### Ekainak 28, Larunbata HAURREN EGUNA

Goizean: Haurrentzat prestatutako **JOKOAK**

14:00etan: **HAURREN BAZKARIA** frontoian

Ondoren: **HAURRENTZAKO AKTIBITATEAK**  
zalditxoak e.a.

16:00etan: **ASTEASUKO XXII. TXIRRINDULARI  
PROBA.** (Elite eta Sub-23 mailak)

Ondoren: **TXORIXOA SAGARDOAREKIN**

Gauean: **HERRI AFARIA**

**EGAN BERRIA** Taldearekin  
**DANTZALDIA**  
**TXOKOLATADA**

3etatik aurrera: **INCANSABLES TXARANGA** goizeko  
8ak arte.

### Ekainak 29, Igandea

Goizean: **MEZA NAGUSIA**

Ondoren: **HAMAIKETAKOA** Elizmendingin  
**PELOTARIAK**

Arratsaldean: **DANTZA SAIOA, UDABERRI  
EUSKAL DANTZARI TALDEAREKIN  
MUSIKA KONTZERTUA** EZTEI tal-  
dea, Xabier Tapiaren taldeak Euskal  
Kantak eskeiniko ditu.

Gauean: **AKELARRE** Taldearekin  
**DANTZALDIA.**

\* Goiz ta arratsaldez (danera 5 ordu) Haur Parkea.

### Ekainak 30, Astelehena: ZAHARREN EGUNA

10:30etan: **HERRI MEZA.**

Ondoren: **AIZTONDO ELKARTEAK** eskeintzen  
duen **HAMAIKETAKOA.**

13:30etan: **HERRI KIROL JAIALDIA ZURGAI**  
Herri Kirol Taldea, Zerratokia,  
Aizkolariak, Gurdia,  
Harrijasotzaileak, Trontza.

14:00etan: **ZAHARREN BAZKARIA** bertsolari  
eta trikitrilariarekin.

16:00etan: **XI MUS TXAPELKETA HERRIKOIA.**

18:00etan: **DANTZA ASKATUKO ASTEASUKO  
II. TXAPELKETA**

Gauean: **IPARRAGIRRE ANAI-ARREBEKIN**  
(Koldo eta Arantza) **ERROMERIA-  
DANTZALDIA**

\* Goiz ta arratsaldez (danera 5 ordu) Haur Parkea

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
J.A. Rodriguez «Txiki».  
"Eman aukera!".
2. **TXAPELA ETA MAKILA**
3. **LARRAUL.**  
Elizaren inaugurazioa.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
San Pedro jaia.  
Martin Ugaldere omenaldia.  
Zirkulazio ordenantza.
7. **ASTEASU.**  
Ertzainen eta herritarren arteko istiluak.
- 8-9. **BILLABONA.**  
Musika eskola.  
Txiskolariekin solasean.
10. **ZIZURKIL.**  
Musikil elkartearen agurra.
11. **AIURRI.**
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Magiaz beteriko 800 kilometro.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Bidezko merkataritza.
- 16-17. **KIROLA.**  
Axier Etxezarreta eta Xabin Mujika andoaindarraren probak.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **BETERRIKO LIBURUA/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Iñisari. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia. Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## EMAN AUKERA!



J. A. RODRIGUEZ «TXIKI»

**D**uela egun batzuk txori batek gogorazi zidan: *Aiurri* doan banatzen dela oraingo hau duk hire azken zutabea. Egia; beraz, eta nire aldetik tamalez, zuetako askorentzat hau adiozko zutabea da.

Partaidetza zuzena izan ez banuen ere, nahiko gertutik bizi izan nuen *Aiurri*-ren jaiotza. Ez zen batere erraza izan. Larramendi Bazkuna sortu. *Aiurri* proiektua landu, eztabaidatu eta aurkeztu, eskualdeko Udalekin negoziaketak burutu, egoitza prestatu, kazetaria eta beste langileak kontratatu... Baten batzuk lana erraz egin zuten, baina azkenean lortu zen. Bagenuen euskarazko aldizkariarik, euskararen normalkuntzarako urrats bat besterik ez zena, baina aurrerakako urratsa, zalantza izpirik gabe.

Proiektu hauetan guztietan arazo bat, eta ez txikiena, diruarena izaten da, diru faltarena, hobeto esanda. Gure aurrikuspenen arabera -agian baikorregi jokatu genuen- *Aiurri* aurrera ateratzeko Administrazioak -eskualdeko Udalek batik bat- zati bat -%65 gutxi gorabehera- jarri behar zuten. Beste here-na publizitatearen bidez lortuko genuen.

Denbora dexente pasa da -gezurra badirudi ere eskuartean duzun hau 61. alea da- eta gure aurrikuspen hauek ez dira bete. Ondorioz, eta hasieratik, zenbaki gorritan murgildurik bizi gara. Orain arte nola estali dugu defizita? Udalek eta Larramendi Kultur Bazkunak egindako diru-ekarpen gehigarrien bidez, Baina horrela ez zegoen jarraitzerik.

Udalek nahikoa egin dute. Beti Administrazioari errua botatzeko joera dugu. Eta gehienetan asmatzen dugu. Baina kasu honetan ez. Udalek bere hitza bete dute, eta, diruari dagokionez, ez dut uste *Aiurri*-rekiko duten konpromezuak areago jogan behar duenik. Bestalde, garbi dago Larramendi Kultur Bazkunari ezinezkoa zaiola defizit kroniko bati aurre egitea.

Ez zegoen beste irtenbiderik. Publizitate bidezko diru-sarrerak handitzeko ahaleginetan jarraitu eta *Aiurri* kobratzen hasi. Benetan diozute, irakurle, ez da erabaki erraza izan, nahitaezkoa baizik.

Orain arte 800 bat dira urtean 2.000 pezeta ordaintzeko prest dauden Aiurritarrak. Bejondeizuela! Baina milaka ere eguneko 6 pezeta ordaintzeko prest oraindik agertu ez direnak. Ohartu ez direlako?, agian; utzikeriagatik?, agian; *Aiurri* gustoko ez dutelako?, agian ere. Ez dut uste harpidedun izateko errukia edo hizkuntz-militantzia izan behar dutenik arrazoi nagusiak. Ez horixe, *Aiurri* erosteko prest izan beharko genuke gustokoa dugun aldizkaria delako.

Gure aldetik -modu batera edo bestera *Aiurri*-ren inguruan mugitzen garenok- prest gaude. Prest gaude aro berri bati aurre egiteko, prest gaude ideia eta asmo berriak ezartzeko, prest gaude *Aiurri* gustokoa izan dezazun indarrez eta kemenez lana egiteko, prest gaude... Baina horretarako zu harpidedun izatea behar dugu, zure 6 pezeta horiek behar ditugu. Emaigu-zu urtebeteko bizi-aukera. Ez dizugu hutsik egingo.



Aldizkari honen Euzko Legebiltzarako Kultura Sailaren Laguntza jasotzen du.




Aldizkari honen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Eusketako Departamentuaren Laguntza jasotzen du.

Guk, zuen iritziak, kexak eta proposamenak jaso nahian, **Txapela eta Makila** izeneko atal berria gehitu diogu aldizkariari. Gauzak horrela, zerbait txalotu nahi izanez gero, adibidez, bidal ezazue **Txapela** izeneko atalera zuen iritzia.

Hori bai, zuen izen-abizenak (inizialak bestela) eta herriaren izena ere argitaratuko dugu. Zerbait kritikatu nahi izanez gero, ordea, gauza bera egin behar duzue

baina iritzia **Makila** izeneko atalera bidali behar duzue. Guk, aipatzen duzuen gaiari buruzko argazkia ere argitaratuko dugu. Ah! eta lasai egon, **Galdezka** atala ez baitugu kendu.


Zuen iritzirik ez dugunean gu irtengo gara kalera iritzi bila, orain artean bezalaxe. Beraz, animatu zaitezte ondo dagoenari txapela jartzen eta gaitzki dagoenari makilarekin jotzen!



## TXAPELA

**A**dunako herri eskolak hilaren 8an herrian ospatu zen eskola txikien eguna antolatzen ibili ziren guztiei txapela jarri nahi die. Eskerrik asko guztiei.

Adunako herri eskola  
ADUNA



## MAKILA

**A**steasu erreka aztertzen ari ginela zabortegei hau bilatu genuen erreka bazterrean. Zaborra nonahi eta nolanahi botatzen dutenek makila merezi dutel!

Pello Errotako 5. eta 6. mailako ikasleak  
ASTEASU

VAC  
VAC

# HOL-ATZ

VACSOL - WR<sup>®</sup> TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN  
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA**

Elbarrena, z/g.  
☎ 69 30 63 - 69 07 34  
ADUNA

## JOSEBA ALTZARIAK

Eskaintza bereziak!!

Kalea: ...

# ELIZAREN INAUGURAZIOA

## Herritar eta kanpotar ugari elkartu ziren elizaren inaugu- razio egunean

Azkenean, eta lan ugari egin ondoren, Larraulgo San Esteban eliza inauguratu zuten ekainaren 22an. Eliza bete jende, herriko apaiza den Albizu erretoreak eta Setien gotzainaren ordezkariak Aldaregik eman zuten. Larraulgo eta inguruko herrietako udal ordezkariak, Gipuzkoako kultura diputatua den Koruko Aizarna eta elizako lanak egiten aritu diren arkitekto eta margolariak bildu ziren Larraulgo herritarrekin batera eliza inauguratzera.

**G**oizeko hamaiketan eman zitzaion hasiera San Esteban eliza inauguratzeko mezari. Bertan, Antton Amonarriz herriko alkate zenaren gogoeta egin zuten, izan ere, berak buruan zuen ideia zen eliza berritzea, eta gainera, oso maitea zuten herritarrek. Era berean, herritarren eta udalaren ekimena txalotu eta goraitatu zuten eliza berritzeko lanak egiteko erakutsi duten taldekidetasuna eta borondateagatik. Meza amaitu ondoren hamaikerakoa egin zuten herritarrek, eta ondoren, bazkaria zuten elizako agintari eta politikoek lanak egiten jardun duten arkitekto eta margolariekin batera.

### GUZTIEN GUSTUKO ERABAKIA

Bizpahiru urte pasa dira Larraulgo San Esteban elizako margoa agertu zenetik. Erretaula berria margotzeko kendu zutenean agertu zen XVI. mendeko grisalla edo margoa. Gauzak horrela, artelan garrantzitsu horrekin zer egin erabaki behar izan zuten herritar eta udal ordezkariak, eta azkenean, margoa ageri uzteko, erretaula berria (XVII. mendekoa) hiru metro aurreratzea erabaki zuten. Erabaki honen ondorioz, herritarrek betidanik eza-gutu duten erretaula berrizatuaren aurrean entzungo dute meza, eta era berean, atzeko margoa ikusteko aukera izango dute hori egin nahi dutenek.



*Erretaula berria aurreratu behar izan dute.*



*Erretaula eta margoa konpondu duten arkitekto, zabarberritzaile eta agintariak.*

### • Gay eta lesbianen nazioarteko eguna ekainaren 28an

Bihar, ekainaren 28an, gay eta lesbianen nazioarteko eguna ospatzen da. Arrazoi horregatik, eta EHGAM eta GLFK mugimenduen laguntzarekin, gay eta lesbianen mugimenduaren adierazgarria den hiruki arrosa ezarriko dute egun osoan Andoaingo udaletxeko balkoian.

Ekintza horren bitartez Andoaingo Udaleko Ongizateko batzordeak EHGAM eta GLFK taldeen errebindikazioekin bat egiten du, norberak nahi duen aukera sexuala egiteko eskubidea duela aldarrikatuz.

### • Portugalerako bi-daia bertan behera

Uztailaren 4tik 11ra bitartean Portugalera egin behar zuten bi-daia suspenditu egin da. Andoaingo eta Lasarteko Udalak antolatutako bidai hori bertan behera uztearen arrazoiak, izena eman duten herritarren kopuru txikia izan da.

### • Nafarroa plaza berrituta

Azken hilabeteotan Nafarroa plaza berritzeko eginiko lanak bukatu dituzte. Jada, San Juanetako festak direla eta, plazan bertan dagoen kioskoan musika taldeen emanaldiak izan dira.

### • Kartel lehiaketaren irabazlea

Mirene Beriain andoaindarrak irabazi du San Juan jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Zorionak Mirene!



## HERRIKO KOTXE ZIRKULAZIOA KONTROLATZEKO NEURRIAK

### Zirkulazio arauak betetzen ez dituztenei ezarriko zaizkien zigorrak adostu dituzte



*Isunak ordainarazteko neurriak hartuko dituzte.*

**E**kainean bildu zen udalbatzak, herriko zirkulazioa kontrolatu eta errepidetak segurtasuna bermatu nahian, zirkulazioari buruzko udal ordenantzak adostu zituen. Ordenantzen helburua, beraz, herrian dauden zirkulazio arazoak konpontzea da.

“Andoaingo zirkulazio ordenantza zaharkiturik zegoen jada, eta beraz, egungo arazoak konpontzeko egin dugu ordenantza berria” azaldu digu zerbizu batzordeko buru den Maxen Zinkunegik. Izan ere, eta beste herriek duten bezalaxe, Andoinek ere zirkulazioa arautuko duen ordenantza behar duela iruditu zaio Udalari. Ordenantza horretan kotxeetako gidarien, txirrindularien, eta besteak beste, oinezkoen betebeharrak zeintzuk diren azaltzen da. Era berean, bide publikoak, aparkatzeko lekuak eta oinezkoen guneak zeintzuk diren zehazten dute.

Horrezaz gain, arau horiek betetzen ez dituztenek ordaindu beharko dituzten isunak ageri dira.

### ISUNAK

Zirkulazioko arau haustek hiru izan litezke: hutsegitea arina, larria edota oso larria izan daiteke. Gauzak horrela, isunak 15.000 pezeta, 50.000 pezeta eta 100.000 pezeta bitartekoak izango dira. Isuna lehen hamar egunetan ordainduz gero, %20ko beherapena izango du. Isuna bere osotasunan ordaindu beharko da ezarri eta hamabost egun bete bitartean ordaintzen bada. Epe horretatik aurrera isuna %20a gehiago ordaindu beharko da. “Helburua ez da isunak kobratzea, baizik eta arau horien bitartez zirkulazioa behar den bezala antolatzea. Izan ere, kotxea nahi dugun tokian uzteko ohitura dugu, arriskutsua izan arren”, gaineratu digu zinegotziak.

### • Gipuzkoako itzuliaren hirugarren etapa

Andoainen korritu zuten Gipuzkoako itzuliaren hirugarren lasterketa 100 txirrindulari gazte inguruk. Zugaitz Ayuso Apaolaza, Igor Usabiaga Ortolaiz, Iñaki Macias Iribarren, Aitor Galdos Alonso eta Ander Perez Arrieta izan ziren lehenengo bost postuetan heldu ziren gazteak. Aipatu beharrekoa da gazte hauek urte honetan nola aurrekoetan garaipen gehiago lortu eta lasterketa ugari korritu dituztela. Mikel Barberena izan zen lehen andoaindarra, eta hamaseigarren postuan iritsi zen helmugara. Iker Arrate eta Iker Izagirre izan ziren lehenengo berrogeien artean iritsi ziren beste bi andoaindarrak.

# UDARAKO TALDE EKINTZAK

## Kale hezitzaileak urtean zehar herriko gazteekin eginiko programaren jarraipena da

*Carlos Arguilea kale hezitzaileak urtean zehar gazteekin landu duen programari jarraipena eman nahian, ekitaldi ugari antolatu ditu udarako. Beraz, uztaila eta abuztuaren herrian nahiz kanpoan, kirola eta bestelako ekitaldiak egiteko aukera izango dute gazte horiek.*

**A** dinaren araberako taldeak eta txandak egin dituzte. Gauzak horrela, astebeteko txanda bakoitzean ekintza ezberdinak egingo dituzte. Lehenengo taldea, ekainaren 30tik uztailaren 5a bitartekoa izango da eta kirol ezberdinak egin ahal izango dituzte Intxaurrendoko gazte batzuekin batera. Horrez gain, zinemara joan edota astronomia ezagutzeko aukera izango dute. Uztailaren 7tik 11ra bitarteko taldeak, Gipuzkoatik barrena eginiko ibilbidean parte hartuko du. Tailer ezberdinetan lan egin eta zinema ikusteko aukera ere izango dute. Uztailaren 14tik 18ra bitartean Burdeosera joango dira herriko zenbait gazte. Bertan, kirol ezberdinak egin ahal izango dituzte.

Hamabi urtetik berako gazteenak, eta Goazen Jolasterako udalkeu irekiarekin batera, Igeldora, hondartzara, Akuarium-era eta inguruko lekuetara joango dira. Abuztuak 4tik 8ra bitartean, mendiko bizikletako ibilbideak, orientazio ikastaroa eta "vivac" (superbibentzia) ekintzak egingo dituzte, besteak beste.

# SAN PEDRO JAIK 1997

## Ekainaren 27a eta 29a bitartean ospatuko dira jaiak

*Urtero gisa Kaletxikitarrek aurten ere beren auzoko festak ospatuko dituzte. Duela gutxi izandako uholdeek eragindako hondamendia ahaztu asmoz, jaiak auzotarren eta andoaindarren festa giroa eta umorea pizteko izango dira.*

**G**aur, arratsaldeko 20:00etan, hasiko dira San Pedro jaiak. Kandido eta bere txikitxuei ongietorria egingo zaie, eta Goikoplazatik Kaletxikira jaitsi ondoren, Kandidok bere lehenengo suziria piztuko du. Koloretako zapiak kallean eta ikurriñak elkartean ipini ondoren, festei hasiera emango zaie. Hurrengo egunean IV. sagardo txapelketa, plater tiroketa txapelketa herrikoia, III. mus txapelketa, toka txapelketa herrikoia eta Kaletxikiko XII. danborrada nagusia izango dira, besteak beste. Ekainak 29an, azken egunean, Berrozpeko meza, dantzarien ekitaldia, VII. kaletxikitarren bazkari herrikoia eta ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partidua egingo da.

### BETIZU JANA

Uztailaren 5ean, larunbatean, gaueko 21:00etan egingo da urtero egiten den betizu jana Ontza elkartean. Txartelak jada salgai daude ohizko lekuetan: Buruntzan, Kaletxiki okindegian, Patxi harategian, Ontza elkartean eta Elizondo tabernan. Prezioa 2.700 pezetakoa da. Txartela erosteko azken eguna uztailaren 3a da.

 **LEIZARAN**  
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40  
20140 ANDOAIN  
TEL.: 59 33 39  
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

**ARANBURU**

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea  
☎ 59 08 14  
Fax-a: 59 24 03  
ANDOAIN

winterthur

# MARTIN UGALDERI OMENALDIA

## Andoaingo Udalak eta Larramendi Bazkunak antolatuko dute

*Andoaingo Udaleko Kultura Batzordeak eta Larramendi Bazkunak lehen itxura eman diote datorren azaroan Martin Ugaldere egingo zaion omenaldiko programari. Urte hasieran jarri ziren harremanetan Andoaingo Udala eta Larramendi Bazkuna idazle andoaindarraren omenaldia antolatzeko eta, bi erakundeek erabaki ondoren ospakizunak elkarrekin antolatzea, dagoeneko, lan batzuekin hasiak dira.*

**H**orrela, bada, omenaldi ekintzak urriaren 30ean hasi eta azaroaren 9ra arte egingo dira, eta antolatzaileek adierazi digutenez helburuak garbiak dira: *"Batetik, Andoaingo herriak Martin bere semeari eskerrona eta begirunea azaltzea alor ezberdinetan egin duen lan bikainagatik. Bestetik, aukera paregabea izango da Martinen lana ezagutzen ez duten andoaindarrak hurbil daitezzen gure herriak ondutako lan zabalaren berri izateri".*

Udalak hiru jarduera nagusi antolatuko ditu: lehen, Martin Ugaldere bizitza eta obrari buruzko erakusketa izango da, Urigain Kultur Etxean zabalduko dena; bigarrena, Andoaingo eskolekin batera antolatuko dituen bi lehiaketa, batek ipuingintza izango du helburu, eta besteak Martin Ugaldere obran Andoainek zernolako presentzia duen ezagutzea. Hirugarrena, Martin Ugaldere Andoaingo Seme Kuttun izendatuko duen Udalaren batzarraldia izango da, azaroaren 9an ospatuko dena.

Larramendi Bazkunak bere aldetik, baina Udalaren ekintzekin programa berean uztarturik, beste hiru jarduera nagusi antolatuko ditu: lehenik, hitzaldiak eta ikusentzunezkoen emanaldia: hiru hitzaldi izango dira egun horietan eta beste hiru audiobisual, gutxienez bi Martin Ugaldere ardurapean 80eko hamarkadan egingako "Euskaldunek hitza" sailekoak. Larramendi Bazkunak ere Aiurri aldizkariaren zenbaki berezi eta apartekoa egingo du, 70en bat orrialdekoa, oso-osorik Martin Ugaldere buruzkoa, Beterri-Aiztondoko irakurleei banatzeaz gain Euskal Herriko beste hiri eta herri batzuetako cuskaltzaileei ere iritsaraziko zaiena. Azkenik, azaroaren 9an, Larramendi Bazkunak Martin Ugaldere

ohorezko lehendakari izendapena eskuratuko dio arratsaldean, goizez Udaletxetan Seme Kuttun izendapena jaso ondoren. Larramendi Bazkunak bere azken Biltzar Nagusian erabaki zuen elkarrearen estatutuei jarraiki Martin Ugaldere ohorezko lehendakari izendatzea.

Horretan laburbildu digute antolatzaileek oraingoz omenaldiko programa izango dena. Garbiñe Egibar Kulturako zinegotzi-arduradunak adierazi digu oraindik aldatetaren bat izan litekeela baina Kultura Batzordean hasiak direla lanean programa hori gauzatzeko: *"Kultura Batzordeko kide guztiak bat etorri gara Martin Ugaldere egin beharreko omenaldiaren nondik norakoak erabakitzean. Gainera, gauza bat oso garbi dugu: guregandik izan dezakeen eskerronik handiena bere idazlanen eta obraren zabalakundea ziurtatzea da; bere obra ezagutu eta ezagutaraztearekin egiten diogu omenaldirik handiena. Udalak antolatu dituen ekintza gehienak asmo horren arabera gorpuztu ditugu".*

Larramendi Bazkuneko Jon Unanueren iritziz: *"omenaldiak aukera paregabea eskainiko digu guztioi Martin Ugaldere idatzi duen obra zer nolakoa den ezagutzeko; baita berak bizi eta eragindako herrigintza aztertzea ere, ez baita garrantzi txikiagokoa. Bere bizitzan izandako kinka larriko une eta erabaki askok azaltzen digute gizon honen sena; kinka larriak ez bakarrik gerra garaian edo erbeste goa-beheretan, baita bere literaturgintzan egin behar izan duen abalegina Venezuelatik*

*itzuleran -bertan hogei urtetik gora egin ondoren!- bere idazteko sena euskararentzat berreskuratzea, euskara batua egokitzea, etab. Alderdi askotatik dugu zertan ezagutu eta eskerturik Martin Ugaldere lana".*



Martin Ugaldere.



# ERTZAINEN ETA HERRITARREN ARTEKO TIRABIRAK

**Ertzain bat jotzen saiatzea leporatzen diote herriko gazte bati**

**O** skorriren kontzertuaren biharamonean izugarrizko iskanbilak izan ziren herriko 30 lagun eta ertzain batzuren artean. Ertzaintzaren prentsa bulegoak adierazi digunez, herriko bizilagun batek Ertzaintzari deitu zion bi kotxetako musika ozen zegoela eta hura itzaltzera joateko eskatuz. Arrazoi horregatik joan zen Ertzaintzaren kotxe bat Asteasura. Une horretan bertan zeuden Herri Batasuneko zinegotzien esanetan, ordea, Ertzaintza etortzerako kotxe batean jarrita zeukaten musika kendu egin zuten. Ertzaintzaren iturrien arabera, ertzainen kotxea herritarren aurretik pasa zenean heritarrek irain egin zieten. HBko kideen esanetan berriz, ertzainak argazkiak ateratzen hasi ziren herritarrei musika kentzeko edota antzeko ezer esan aurretik, eta horren ondorioz, herritarrek ertzainen aurrean dantzan eta kantuan hasi ziren. Gauzak lasaitu beharrean, ordea, okertu egin ziren. Ertzain gehiago etorri zen herrira, lauzpabost kotxe inguru HBren esanetan eta bi kotxe berriz, Ertzaintzaren iturrien arabera, eta herritarren eta beraien arteko tirabirak areagotu egin ziren. Zinegotzi hauek "beltzak" agertu zirela esan diguten arren, Ertzain-

tzak ukatu egin digu hori. Azkenean, zinegotziak tartean, Ertzainak hiru herritar atxilotu zituen: gazte bati ertzain bat jotzen saiatzea leporatzen diote, eta beste biei berriz, ez identifikatu izana. Gainera, eta HBko zinegotzien esanetan, zinegotzi bi atxiloketak oztopatzeaz akusatu dituzte. Tentsio une handiak bi-

zi izan ziren atxiloketak gertatu zirenean, eta baita atxilotuak eramanez zuzen Hernaniko komisaldegian ere. Ondorioz, eta atxiloketen berri izateko, udaleko ordezkari gehiago eta alkatea joan ziren Hernaniko komisaldegira atxilotuak eguncan aske uzteko eskatuz.



*Gertaerak izan ziren lekua.*

**HERRI BILERAK  
ETA UDALAREN  
EKIMENAK**


Herri bilera bat baino gehiago egin da egunotan gertaera honi buruz eztabaidatzeko eta atxiloketa eta akusazio hauen aurrean zer egin erabakitzeko. Gauzak horrela, herritarren eta udal ordezkarien arteko bileren ondorioz, atxilotuaren abokatuaren gastuak beregain hartuko ditu udalak. Izan ere, hiru atxilotuetako bi identifikatu eta gero kargurik gabe aske utzi gelditu arren, hirugarren atxilotua ertzain bat jotzeaz akusatzen dute, eta beraz, epailearen aurretik pasa beharko du.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa  
fundación*



**ZUBi**  
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

# MUSIKA ESKOLA

## Iñaki Zalakain:

### "Programazioa eta koordinazioa falta dira musika eskolan"

*Iñaki Zalakain hamabost urtetan aritu da, eta egun oraindik ari da, lau urtetik gorako haurrei musika erakusten. Musika eskolak hurrek musika ongi pasatuz ikasteko sortu ziren, kontserbatorioetan irakasteko duten modu zorrotzaren alternatiba gisa. Berrehun ikasletik gora ari dira musika eskolan ikasten, eta lau irakasle irakasten.*

*Baina programazio eta koordinazio falta ikusten du Iñakik udala eta musika eskolaren artean nola bertako irakasleen artean, "datorren ikasturterako hori guztia konpondu nahi da, ordea". Gu berarekin izan gara musika eskolak ikasturte bukaeran egin duen jaialdia aitzaki dugula.*



## Aurrematrikulazioak

**Datorren ikasturterako aurrematrikulazioak egiteko epea hilaren 30etik uztailaren 4ra bitartekoa izango da. Beraz, datorren ikasturtean musika tresnaren bat jotzen ikasi nahi dutenek lehenbailehen eman behar dute izena Kultur Etxean datorren ikasturteko klaseak behar bezala antolatzeko.**

**Aiurri:** Zer eskaintzen duzue musika eskolan? Zenbat ikasle dituzue?

**Iñaki Zalakain:** Nik 146 ikasle ditut eta erritmoa, solfeoa eta musika tresnaren bat edo beste jotzen irakasten diet; progresiboki erakusten diet hori guztia. Isabel Izquierdok berriz, pianoa jotzen irakasten dio 30 ikasleri. Garbiñe Berakoetxeak eta Iñaki Letamendiak, azkenik, biolina eta txistua jotzen irakasten diote zortzi ikasleri.

**Ai.:** Haurrak izango dira ikasle horietako gehienak; helduentzat ez al dago eskaintzarik, ala?


**I.Z.:** Musika eskola, berez, herriar guztiei irekita dago. Hala ere, haurrak dira gehien etortzen direnak. Baina gitarra ikasteko elkartzen den heldu talde bat badaukagu, eta datorren urtean dultzaina jotzen ikasteko klaseak eta klase berri gehiago eskainiko dira beharbada.

**Ai.:** Zer moduzko harrera du musika eskolak herrian?

**I.Z.:** Harrera ona du, haur mordo bat etortzen baita musika eskolara, eta gustura, gainera. Hala ere, udalaren eta musika eskolaren arteko koordinazioa falta da, baita irakasleen artean ere; programazio serio bat egin behar da. Hurrengo ikasturterako hori egiteko asmoa dago, izan ere, beharrezkoa da guztiok klaseak modu berean bideratzea eta helburu batzuk finkatzea. Hori egin ahal izateko derrigorrezkoa da udalaren laguntza.

**Ai.:** Zein da haurrei musika erakusteko modu egokiena?

**I.Z.:** Haurrak ongi pasatzen dutelako etortzen dira musika eskolara, beraz, musika irakasteko moduak dibertigarria izan behar du. Lehen titulua lortzeko ikasten zuten askok musika, baina orain hori zertxobait aldatu egin da; musika gogoz ikastera etortzen dira orain.



# TXISKOLARIAK:

**“Txistek kontatzeko dugun graziagatik baino antzerkia egiteko moduagatik lortu dugu bigarren postua”**

*Enpresariak izateko ari dira ikasten Zigor Leunda, Urtzi Bastarrika eta Gorka Azpiazu. Baina ez dira edonolako enpresariak izango, txistek kontatzeko eta parodiak egiteko aparteko abilezia duten enpresariak izango baitira. Billabonakoak dira lehenengo biak, eta Oñatikoa berriz, hirugarrena. Klase berekoak dira hirurak, eta ikaskideen laguntza handia izan dute Txiskolako saioak prestatzerako orduan. Beraz, eta telebistan agertu direlako herritarren adar jotzeak jasan behar dituzte arren, San Fermin egunean Santo Domingora joateko hegazkina hartuko dute txistek kontatzearen truke.*



*Urtzi Bastarrika eta Zigor Leunda.*

**Aiurri: Nolatan Txiskolako lehiakide?**

Urtzi Bastarrika: Zigor beste behin ere izan zen Txiskolan, Jon Zaldua eta Aitor Landarekin batera.

Zigor Leunda: Orduan, lehenbiziko saioan, kanpoan gelditu ginen, eta gehiago azaltzeko gogoarekin gelditu nintzenez, berriro ere aurkeztea pentsatu nuen.

**Ai.: Eta nolatan zuek hirurok?**

Z. L.: Ezin nuen aurretik atera ginen ekipo berean irten, beraz, eta Urtziri txistek kontatzea asko gustatzen zaiolako eta Gorka klasetik ezagutzen genuelako, hirurok aurkeztea erabaki genuen.

**Ai.: Nola prestatu duzue txiste errepertorioa?**

Z. L./U. B.: Telebistako txiste programetatik nahiz Joxe Ramon Galarraga eta Kike Amonarrizen txisteetatik batzuk aukeratu ditugu, baita lagunek kontatzen dizkiguten batzuk ere.

Hala ere, txistek bezain garrantzitsu bilakatu da kantatu bat hartu eta hura kantatu eta dantzatzea. Txiskola musikalak eta antzerkiak garrantzi handia hartu du Txiskolan.

**Ai.: Eta zenbatgarren postua lortu duzue?**

Z.L./U.B.: Finaleraino heldu gara, eta lehiakideak izan ditugun donostiarren aurka galdu egin dugu. Hala ere, finala jokatu aurretik sariak erdibanatzea erabaki genuen, eta beraz, guztiok egingo dugu bigaia eta jasoko dugu diru kopuru bat. Ez genuen pentsatzen finaleraino iristea ere.

Txistek kontatzeko graziagatik baino antzerkia eta koreografiak egiteko moduagatik lortu dugu bigarren postua.

**Ai.: Zer moduzko giroa izan duzue lehiakideen artean?**

Z.L./U.B.: Oso giro ona daukagu lehiakideen artean, afariak egiteko gelditu gara dagoeneko. Hala ere, saioa nahikoa serioa jokatzen dugu, hau da, antolatzaileek oso serio hartzen dute saioa. Behar bada, lehiakideak gara saioa lasaia go hartzen dugunak eta bata besteari laguntzen ibiltzen garenak.

**GOROSTI**  
**HERBORISTERIA**

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

---

Txermin kalea 13, behea  
 ☎ 69 20 56  
 Billabona

# MUSKIL ELKARTEAREN AGURRA

## Antzeko talde berri bat osatzeko bilera bat egingo dute gutxian

Lau urtetan zehar aritu dira Muskileko lagunak herri txikiaren arteko harremanak sendotzeko eta herri bizitasuna emateko ekintzak antolatzen. Egungo gizarteak erakusten duenaren aurka, taldekidetasuna, elkartasuna eta errespetua izan dira, besteak beste, Muskil elkarteak jolasen eta kirol ekintzen

bitartez landu dituen baloreak, horretan saiatu dira behinik behin. Ildo honetatik, hamabi herrietako gaztetxo asko ibili dira eskiatzen, pilotan eta gauza gehiago egiten, baina aurrerantzean ez dute hori egiteko aukerarik izango; ez behintzat elkarte batek antolaturik.

**M**uskilek aurrera jarraitu ahal izateko aurrekontua igo behar egin behar zen, eta beraz, udal bakoitzak ordaindu beharreko dirukopuruan aldaketak egin behar ziren. Arrazoia hau dela eta hasi ziren udal ordezkarien eta Muskil elkartearen kideen arteko bilerak, aurrera begira Muskilek behar zuen aurrekontua eta antolaketa berria erabakitzeko, alegia. Hala ere, eta Muskileko ordezkarien esanetan, hau ez da izan elkarte desegiteko arrazoa, "elkartearen norabideaz eta proiektuaren helburuaz hausnarketa batzuk egiteko aitzakia baino ez da izan diruaren gorabehera", adierazi digute.

### NORABIDERIK GABEKO PROIEKTUA

Muskileko ordezkarien esanetan elkartearen diru gorabeherataz hitz egitea baino beharrezkoagoa ikusten zuten proiektuaren norabideaz hitz egitea udal ordezkariekin egin zituzten bileretan. Izan ere, eta nahiz eta diru arazoak eduki, elkartearen arazorik

nagusiena proiektuaren inguruan lan egingo zuten herritarren gabezia zen.

"Gainera, zenbait herrietako udalek ez dute proiektuaren aldeko jarrerarik azaldu, eta ondorioz, ez da herrietan elkartearen inguruan jenderik bildu", esan digute Muskilekoek. Beraz, zenbait udalerririk ez zekiten oso ongi Muskil zer zen eta zertarako zegoen, "ez dira, ondorioz, elkarteak aurrera jotzeko beharko lituzkeen bide alternatiboak proposatu edota eztabaidatu".

### TALDE BERRI BAT OSATZEKO BILERA

Herri txikiaren haurren gurasoek ez dute erabaki honetan parte hartzerik izan, eta batzuek, Asteasu-koek bereziki, otsipenez hartu dute elkarte desegin- go denaren albistea. Hala ere, eta balore nahiz helburu horiek lantzen jarraitu nahi duten herri txikiaren bizilagun eta udalek, bilera bat egingo dute gutxian Muskilen antzeko beste elkarte bat osatzeko asmoarekin.



Jendea eta udalaren inplikazio falta somatu dute arduradunek.

**ILLUMBE, S.L.**  
Autoelektrizitatea

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK  
Pablo Gorosabel, 48  
☎ 65 54 76 TOLOSA  
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa  
☎ 59 24 11 ANDOAIN

**minikost**

LIBURUDENDA  
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57  
ANDOAIN

**Kaixo irakurle!**

Aiurri etxean, dohainik behintzat, jasoko duzun azkenaldia da. Hiru urte luzeetan herrietako albiste eta bitxikeriak biltzen aritu gara, herritarrok gure inguruan ditugun gauzen berri izateko. Orain ere, bide beretik ekingo dugu, baina lanean jarraitzeko zuen aportazioa behar dugu; zuek Aiurriren harpidedun egitea behar dugu. Jada harpidedun egin zaretenoi eskerrik asko, eta gure artean jarraituko ez duzuenoi berriz, hemen izango gaituzuela gogorarazi. Ah! eta ez ahaztu Aiurri argia ikustea zuen esku dagoela, ezin baita herri aldizkari bat herritarren laguntzarik gabe osatu.  
Mila esker guztioi.

# AIURRI

- **AIURRIKO HARPIDETZA TXARTELA BETETZEKO GARAIZ ZABILTZA!**
- **HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDALI GURE EGOITZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!**
- **DIRUA GURE KONTU KORRONTEAN SARTU BEHAR DUZUENOK, EGIN EZAZUE LEHENBAILEHEN, MESEDEZ!**

## HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak: .....

**URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.**

Helbidea: .....

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: ..... Herria: .....

.....  
Entitatea   Sukurtsala   K.D.   Kontu zenbakia

Lanbidea: ..... Jaiotze data: .....

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko<sup>☐</sup> : ..... Laneko<sup>☐</sup> : .....

# MAGIAZ BETERIKO 800 KILOMETRO

**Orreagatik Santiagorako bidea bizikletaz egin dute Fraisoroko adimen urriko bost lagunek eta sei begiralek**



Talde giro ezinhoba izan zuten.

**J**oakin Menendez, Jabi Gonzalez, Jose Manuel Azkue, Jesus Mari Izagirre eta Iñaki Hernandez izan dira bidaiaren protagonistak. Julian Aranburu ere joatekoa zen, baina azken uneko ezbehar baten ondorioz egoitzan gelditu behar izan zuen. Adimen urrikoak dira guztiak, eta beste 59 lagunekin batera, Uliazpi fundazioak Fraisoron duen egoitzan bizi dira. Bidaiako begiraleak Julio Amigo, Jose Antonio Godoi, Sonia Alonso, Raul Barro eta Luis Mikelez izan dira, eta bolondres moduan, azken honen emaztea den Arantxa Alonso joan da. Aipatu beharrekoa da begirale hauek beren opor egunetako 10 egun igaro dituztela bidaiaren egiten, aurrekontua asko igotzen baitzen begiraleek soldata kobratuz gero. Behin ibilbidea eta zein begirale joango ziren zehaztuta, Fraisoro egoitzako adimen urriko zeintzuk joango ziren erabaki behar izan zuten: "Beren kabuz egokien moldatzen direnak aukeratu behar izan ditugu, hamalau egunetan zehar alde batetik bestera mugituz eta jende askorekin erlaxionatuz ibili behar baikenuen. Bestalde, bidaiaren egin aurretik inork ez zekien bizikletan ibiltzen eta horretan ere erakutsi behar izan diegu", azaldu digute begiraleek.

*Egoitzako monotoniatik ateratzeko eta jende "normalarekin" batera gauzak egiteko antolatu zuten bidaiaren Uliazpi fundazioko begiraleek.*

*Orreagatik Santiagora bizikletaz joateko ideia joan den urteko Tourra ikusten ari zirela otu zitzairen. Esan eta egin, hamalau egunetan bizikletan, furgonetan eta oinez ibili dira Santiago*

*bidean adimen urriko bost lagun beraiek laguntzen ari zirela bost begirale eta bolondres gisa joan den beste lagun batekin batera. Ibilbideko aterpetxeetan egin dute lo, gainerako bidaiariekin batera, eta jende nahiz herri berriak ezagutzeko aukera izan dute hamabi etapetan korritu dituzten 800 kilometrotan zehar.*

## BIZIKLETAN IBILTZEN IKASI BEHAR

Hasieran hiru gurpiletako bizikletarekin saiatu ziren arren, ONCE etxeak eskaini zien tandem-a egokiagoa zela ikusi zuten gero. Beraz, tandem-aren atzeko eserlekuan ibiltzen erakutsi zieten begiraleek bidaiaren egin duten ziklista bereziei. "Guztiok, bai gu bai mutikoen gurasoak, harriduta gelditu ginen bizikletan ibiltzen segituan ikasi zutelako, ongi gainera!", azaldu digute begiraleek, bidaiaren egin aurretik, mutikoak bizikletara ohitze-ko herri inguruko bide batean nola korre asko ibiltzen den errepidean bizikletan ibili zirela gaineratuz. Hori guztia egin ondoren, behar zuten materiala lortzea baino ez zitzairen falta. Arropak Banestok eskaini dizkie, eta Abraham Olanoren laguntza ezin bestekoa izan da hori lortzeko. Bestalde, Andoaingo Zirauna etxeak ere eskaini die laguntzarik. Jada ekipo osoa prest zuten, bizikletako pedalei ematen hastea baino ez zen falta.

## MAGIAZ BETERIKO BIDEAN ZEHAR

Luis Mikelezen esanetan, Santiago bideak zerbait magikoa du, guztia ueste baino hobeto irten baitzaie.

Orreagan hasi zuten maiatzaren 19an 800 kilometroko ibilbidea. Hamalau egunetan zehar egin behar zuten ibilbidea, eta inoiz egin duten irteerarik luzeena eta konplikatuena izan da: "Udaran beti irtetzen gara egun batzuetarako nonbaitera, baina horrelako irteera luzea, eta gainera, alde batetik bestera ibili beharrekoa egitea izugarritzko apostua izan da guretzat". Beraz, eta normala denez, nahikoa urduri zeuden bai begiraleak nola mutikoak bidaiaren lehenengo egunean Orreagan, "euria, telebista kamarak, egoitzako zuzendaritza... jende asko eta nerbio asko izan genituen lehen egunean". Atarrabian bazkaldu zuten, Indurain Peñaren egoitzan, eta lo berriz, Zizur txikian egin zuten. Nahikoa nekatuta egon arren ez zuten berehalakoan lo hartu lehenengo egunean, oraindik beste hamaike egun zituzten aurretik, eta baita nerbio eta asmo ugari ere. Hurrengo egunak lasaiagoak izan ziren, eta eguraldi ona egin zuten, gainera. "Goizean bakarrik ibiltzen ginen bizikletan, eguerdirako albergera heldu, bazkaldu, garbitu eta geunden herria ezagutzera irtetzen ginen gero", batz beste, 50 kilometro inguru korritu dituzte egunero. Baina kilometro hauek guztiak ez zituzten bizikletaren

gainean egin, ezta ere pertsona bakar-  
 rarak egun bareko kilometro guztiak.  
 "Bizikletan, une berean, lau lagun  
 ibili dira: adimen urriko bat tandem-  
 ean ibili da aurrean begiralea zuela;  
 beste bi begiraleak berriz, bakoitza  
 bere bizikletan ibili da tandem-ekoari  
 laguntzen". Beraz, txandakatuz egin  
 dituzte etapa guztiak, hau da, kilome-  
 tro batzuk egin eta gero aldatu egiten  
 ziren txirrindulariak; batzuk bizikle-  
 tan zihozten bitartean besteak oinez  
 edo furgonetan joan dira. Ibilbidean  
 zehar oso ongi moldatu direla esan  
 digute begiraleek, bai bizikletaren  
 gainean zein bizikletatik jaistean.

*"Ikusgarria izan da 30 pertsonekin  
 batera inolako arazorik gabe lo egitea"*



*"Txandakatuz egin  
 dugu ibilbidea;  
 batzuk bizikletan  
 zihozten bitartean,  
 besteak oinez  
 edota furgonetan  
 zihozten"*

### ERABATEKO INTEGRAZIOA

Bidean izan duten tratua ezin-  
 bea izan dela esan digute, oso harre-  
 man onak lortu dituztela: "Alberge-  
 ean eta herritan oso harrera ona egin  
 digute. Mutikoek oso ongi pasa dute,  
 eta gainera, jendearekin erlazioanatu  
 dira. Harritzeko modukoa izan da 30  
 laguneko gela batean albergeko beste  
 lagunekin batera eta inolako arazorik  
 gabe lo egitea", azaldu digute begira-  
 leek emozio handiz. Gainera, oztopo-  
 ak baino abantailak izan dituzte leku  
 gehienetan, alberge askok ez baitziet-  
 en kobratzen edota salneurria mer-  
 ketzen zieten. Beraien artean ere,  
 hots, bidaia egitera joan diren hamai-

ka lagun artean ez dute inolako  
 arazorik izan. Leku falta dela eta argi-  
 tara ematerik ez dugun arren, bidean  
 gertatutako anekdota barregarri bat  
 baino gehiago kontatu digute.

### AMAIERA HUNKIGARRIA

Bidaia-aren azken egunean, ekaina-  
 ren lehenean, Santiagoko plazara hel-  
 du baino lehenago Fraisorora deitu  
 zuten: "Egoitzari eta bertako lagunei  
 eskaini genizkien azken metroak, eta  
 emozio handiko uneak izan ziren az-  
 ken horiek. Plazara heldu ondoren,  
 besarkatzen, barrez, eta emozioak  
 eraginda, negar egiten hasi ginen.  
 Oso une hunkigarria izan zen". Gai-  
 nera, bidaia ezin egirik gelditu zen  
 Julian Aranburu Santiagoko plazara  
 joan zen egun berean, Iberia hegaz-  
 kin enpresari esker eta Julian Urrez-  
 tarazu begiralearekin batera bidaia-  
 ren amaiera hunkigarri hori bizitzera.

Helburuak beterik, esperientzia  
 aberasgarri bat soinean eta irrifarra  
 ahoan dutela bueltatu dira Fraisorora  
 magiaz beteriko bidaia egin duten  
 protagonista hauek.

### AISIALDIA LANDU BOLONDRESGOAREN BITARTEZ


Joxe Lizasok, Fraisoroko  
 Uliazpe fundazioko zuzendariak,  
 jarri berri duten bolondres pro-  
 gramaren berri eman eta herritar-  
 rarak bertan parte hartzera ani-  
 matzen ditu: "Gaiaren inguruan  
 zerbait ikasten ari direnei dakite-  
 na praktikan jartzeko aukera  
 ematen diegu, eta era berean,  
 egoitzan ditugun adimen urriko  
 lagunei beren bizitza kalitatea ho-  
 betzen diegu". Izan ere, bolon-  
 dresok egoitzako neska-mutikoen  
 aisialdia landuko lukete, hau da,  
 egoitzatik irten eta pasiatzera jo-  
 ango lirakeke adimen urriko lagu-  
 narekin batera. Horrez gain,  
 aisialdiko taldeetan sartu nahi di-  
 tuzte beste herritarrekin batera  
 elkarbizitzeko. Honekin guztiare-  
 kin adimen urriko pertsonak ongi  
 pasatzea eta gizarteratzea lortu  
 nahi dute, "egoitzako jendea ere  
 herritarra baita, zizurkildarra".

**M** Talleres  
 Mendi S. L.  
 Burdinezko piezen egintza,  
 planuen araberakoa.  
 Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.  
 Mekanizazioa.  
 Urrietako bidea, z/g. ANDOAIN  
 ☎ 59 04 52 - 59 05 08

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA  
 KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58  
 ANDOAIN

**Goiko**  
 OPTIKA  
 eguzkitarako zure betaurreko  
 graduatuak 9.500 pta.-tik. aurrera  
 Arteta z/g - 20140 ANDOAIN  
 ☎ 590955

# BIDEZKO MERKATARITZAREN APOSTUA



Haurrak lanean.

Bidezko merkataritzak iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko desoreka, hegoaldeko langileen bizi eta lan baldintza txarrak salatu eta merkataritza solidario eta justua bultzatzeko sorturiko mugimendua da. Tolosa eta inguruko herrietako gazte talde batek darama proiektu berri hori aurrera (Tolosako Setem taldearekin batera) eta horren berri izateko gazte horiekin izan gara.

- Zein da egungo egoera?

Lehen mundu edota herrialde industrializatuek beren interes komertzialak Hirugarren munduaren txirotasunean oinarrituz lortzen dute. Ekoizpen herrialdeetan gero eta gutxiago ordaintzen dizkiete lehengaiekin eginiko produktuak, multinazionalak berriz, gero eta garestiago saltzen dituzte. Gauzak horrela, merkatal harreman horiek, herrialdeen arteko desoreka gero eta handiagoa bultzatzen dute. Egoera horrekin bukatzeko, Europar bidezko merkataritza solidarioa garatzeko erakunde ezberdinak sortu dira.

*“Bidezko merkataritza, produktuen prezioak, bizi kalitatea eta beren proiektuak autofinantzatzea ziurtatuko duen ekimena da”.*

- Zer da bidezko merkataritza?

Ekoizleekin merkatal harreman zuzenak ezartzean datza, hau da, bi-tartekariak ezabatzea. Produktuen prezioak, bizi kalitatea eta beren proiektuak autofinantzatzea ziurtatuko duen proiektua da. Horretarako, nazioarteko merkatal egiturak aldatu behar dira. Berdintasunean oi-

**Nazioarteko  
merkataritzaren  
erlazio insolidarioa  
eta bidegabekoa-  
rekin bukatzea du-  
te helburu**

narrituta, Iparra eta Hegoaldeko herrialdeen arteko elkartruke zuzenagoa bultzatzea dugu helburu.

- Produktuak egiterakoan zein irizpide jarraitzea nahi duzue?

Hirugarren munduan lantzen diren eta dibisa iturri garrantzitsuak izango diren produktuak bultzatu nahi ditugu. Produktuen sorkuntzan, lan baldintza justuak eta osasunerako egokiak lortu behar dira. Edonola ere, ekoizpen hauek monokultiboa eta kutsadura baztertu behar ditu.

-Zein ekoizle eta herrialde lagunduko dira?

Ekoizleen artean, ekoizle elkarte txikien erakundeak, ekoizle kooperatibak eta lan baldintzari buruz OIT-ek gomendatutakoari elkarturiko plantazio pribatuak lagunduko dira. Herrialdeak berriz, Gobernu zapaltzaileek diskriminatutakoak, Iparraldeko herrialdeek baztertzen dituztenak eta hondamendi natural eta migrazio mugimendu handiak jasaten dituzten herrialdeak laguntzeko asmoa dugu.

- Zein helburu ditu bidezko merkataritzak?

Helburua, hegoaldeko herrialdeak, herrialde industrializatuek ezartzen dien ustiakeatik askatzea da. Herritarrak, benetako errealtateaz jabeaztea da gure nahia. Hau da, Hirugarren munduaren egoera ekonomiko larria eta Iparra-Hegoaren arteko harreman desorekatuarekin bukatzea du helburu nagusia. Horrez gain, Hegoko langileei beraien produktuak saltzeko orduan, bidezko prezioa garantizatzea, menpekotasunik gabeko garapen eramangarria lortzea, kontsumo kontzientea sustatzea eta antolakuntzako kideen arteko harremanetan irizpide demo-



kratikoak sustatzea eta gauzatzea eta, gizon-emakumezkoen arteko berdintasuna bultzatzea ditu helburutzat.

- Zein dira Hirugarren munduko herritarren lan eta bizi baldintzak?

Soldatei dagokionez, Europako batzbesteko soldata orduko 1.200 pezeta den bitartean, Marokon orduko 133 pezeta, Polonian orduko 65 pezeta, Indian orduko 51 pezeta edota Filipina ugarteetan orduko 25 pezeta irabazten dituzte. Soldata bajua izateaz gain, hamabi orduko lana, asteburuetako aisialdi edota oporrik ez dute izaten eta sindikalki elkartzeko, edota baldintza hobecoago eskatzeko errepresio handia jasaten dute. Horrezaz gain, 250 milioi ume daude lanean. Arrazoia, soldata bajuagoak ordaintzen dizkietela eta esana betetze-koak direla. Goizeko 8:00etatik gauteko 22:00ak arte egiten dute lan. Astean bitan berriz, goizeko 2:00ak edota 3:00ak arte egin ohi dute lana. Askotan, kalean egiten dute lo.

- Zein erakunde edota talde daude bidezko merkataritzaren barruan?

Lehenik eta behin, merkataritza alternatiboaren inportatzaile diren erakundeak (ATO) ditugu. Horiek, demokratikoki antolaturik dauden hegoaldeko ekoizleei merkantzia erosten diete, haien bizi baldintza duina egingo duen prezio batean. Ondoren, denda, herriko talde, handizkako salmenta eta katalogo

ropan saltzen dituzte.

**Bidezko merkataritza denda, world shop-a,** Europako herrialde ezberdinetako bidezko merkataritzako talde eta elkarteek osatzen dute, eta beraien artean antolaketa zuzen eta sistematiko bat ezartzen dute.

**Berma etiketa edo marka.** Produktu bat, zein baldintzetan egin den jakiteko balio duen Bidezko merkataritzaren tresnetako bat da. Ekoizlearentzat lan baldintza duinak errespetatuz lortutako salgai bat dela

- Talde bezala zein ekintza antolatu dituzue?

Setem EEG-ko taldearen babesarekin dugu eta, bideragarria eta gizateria guziarentzat komenigarria den merkataritza harreman justuagoen aldeko eskaintza luzatu diegu herritarrei. Horretarako, produktu solidarioak saldu dituen postu bat jarri genuen astebukaeran. Hirugarren munduko denda bat izan da, bainan egun batekoa. Horrezaz gain, hitzaldiak ere antolatu genituen.



Tolosako saltokia.

bermatzen dute. Zigiluen artean, Transfair, Max Havelaar eta Fairtrade ditugu.

- Talde gisa, zein asmo edota helburu zehatz dituzue?

Egitasmo horri jarraipena eman nahi diogu. Tolosako asteroko ferrian, hau da, larunbatero, postu bat jarri nahi dugu. Azken helburua, denda egonkor bat ezartzea eta pertsona askoren sentsibilizazioa lortzea da. Kontzientziazioa, aberatsen aldeko eta txiroen duintasanaren aurkako baldintzak dituen egungo nazioarteko merkataritzaren desorekari buruz.

**Zabala**  
Ordukari Bitxitegia

RACER      LOTUS  
TISSOT      SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN  
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

**BASAJAUN**  
LIBURUDENDA

Kale nagusia, 29 ☎ 69 16 51

**BILLABONA**

**Mota guztietako testu liburuen enkarguak jasotzen ditugu.**

**UDAKO IKASTAROAK**  
O.H.O. KO ERREKUPERAZIOAK PRESTATZEKO

- Andoainen
- Uztailaren 1etik aurrera.
- Goiz eta arratsaldez.
- Banaka eta taldeka.
- Irakasle tituluduna.

Informazioa:  
300310 (Xabier)

## AXIER ETXEZARRETA CAJA RURALEKO TXIRRINDULARIA

- 21 urte • Andoaindarru • Perito ikasketak egiten ari da.  
Zinea, inakurtzea eta lagunekin ibiltzea du gustuko.

1.985. urtean hasi zen txirrindularitzaren munduan, Andoaingo txirrindularitza eskolan egin zituen bere lehen kilometroak. Zortzi urtetan zehar hainbat lasterketa eta txirrindularitza probetan lehen postuetan ibili ondoren, afizionatuetara pasa zen 1.994. urtean. Beasaingo Iberdrola taldean biru urte ibili ondoren, Nafarroako Caja Rural taldeko txirrindulari izatera pasa zen. Azken lasterketetan lortu dituen emaitzak divela eta jo dugu berarengana.

Andoain

-Zergatik hasi zinen txirrindularitza?

Txirrindularitza nire lehen kirola izan da. Familiak bultzaturik edo zortzi urterekin hasi nintzen bizikletan ibiltzen, eta oraindik bertan jarraitzen dut. Baina hobby gisa hartu nuen hasieran, beste ezertan pentsatu gabe.

-Zaila izan al zen afizionatuen mailara pasatzea?

Ez dute gehiegi eskatzen afizionatu izateko. Badira bere kontura, independente gisa, korritzen dutenak;

afizionatuetara iritsi baino lehenago uzten dutenak ere asko dira. Hala ere, herri inguruko talde batean sartzea ez da zaila, baina bertan mantentzeko maila piska bat eduki behar da. Afizionatuetan korritzeko go-go behar da. Hori bai, afizionatuetara sartzeko, jubeniletako emaitzak hartzen dira kontutan, eta behin afizionatuetara pasa ondoren, gerta daiteke ezer gehiago ez lortzea.

-Egun Caja Ruraleko txirrindulari zara. Nola doa aurtengo denboraldia?

Denboraldi guztiak nahiko antzekoak izaten dira. Talde berrian nago, eta beraz, ilusio eta motibazio gehiagorekin ari naiz korritzen. Euskal Herriko eta kanpoko lasterketetan parte hartzen ari naiz eta gustura nago. Balentzia, Extremadura, Nafarroa eta Bidasoako itzulietan korritu dut jada. Orain, Segobia, Bizkaia, Zamora eta Kantabriako itzuliak ditugu eta zuzendariak erabakiko du zein bueltetan hartuko dugun parte. Hori bai, maila oneko txirrindulariak itzuli berak korritzen dituzte.

-Zein proiektu dituzu etorkizunerako?

Proiektu nagusia ikasketekin jarraitzea da. Horrez gain, bizikletan ahal dudan guztia egin eta lorpen batzuk eskuratzea espero dut. Aukerarik balego profesionaletara pasa nahi dut. Ahaleginak egingo ditugu, behintzat!

Lasterketak eta emaitzak:

Jubeniletan Euskadiko txapelduna (Tafalla, 1993)

Afizionatuetan lau garaipen:

- Bergaran 2 aldiz lehen postua.
- La Virgen del Oro lasterketan garaile (Araba).
- Extremadura Itzuliko etapa batean garaile.

## ESKOLARTEKO GIPIZKOAKO TXAPELDUNAK

**Eskubaloia, txirrindularitza eta futbol salako kiroletan Andoaingo taldeak garaile**

**A**ndoaingo ikastetxeetako gazteek beren kirozale-tasuna eta maila ona erakusteaz gain, lorpen ugari izan dituzte hainbat kiroletan.

GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETAKO GARAILEAK:

- ➔ La Salle-Berrozpe ikastetxeko Azkar emakumezkoen infantil eskubaloia taldea.
- ➔ Leitzaran ikastetxeko emakumezkoen jubentil futbol sala taldea.
- ➔ Andoaingo txirrindulari eskolako alebin taldea (Mikel Lizaso, Mikel Camacho, Iker Etxeberria, Iñigo Amenabar, Ander Lazkano eta Josu Alonso).
- ➔ Esku pilotan, Aita Manuel Larramendi ikastetxeko Igor Esnaola eta Andoni Alvarez Gipuzkoako eskolarteko bigarrenak ditugu.

IGERIKETA

- ➔ Ikastola, La Salle-Berrozpe eta Leitzaran ikastetxeko gazteek, domina ugari lortu dute igeriketako txapelketan.
- ➔ Kadete mailan zilarrezko 4 domina Adrian Beraza eta Aitor Arizmendik.
- ➔ Kadete mailan zilarrezko domina Xabier Gonzalez eta Arkaitz Lasartek.
- ➔ Maite Rodriguezek zilarrezko domina. eta Nagore Fadriquek brontzezko domina.

ARRANTZA

- ➔ Aitor Urruzuno euli arrantza saileko Espainiako txapeldun berria dugu. Iaz, bere anaia den Iñigo Urruzunok lorturiko garaipena lortu du Aitorrek aurtengoan. Hueskako Ainsa herrian egin zuten txapelketa. Garaipen horrek, Estatu Batuetan egingo den munduko txapelketan parte hartzeko aukera emango die.

# XABIN MUJIKA. TRIATHLOIA, DUATHLOIA ETA IRONMAN PROBETAKO KIROLARIA.

-Triathloia, duathloia, Ironman probak egiten dituzu. Zein proba mota dira?

Triathloian igeriketa, bizikleta eta korrika egiten dugu. Duathloian bizikleta eta korrika, eta azkenik, Ironmana, triathloia denez, hiru kirol horiek egiten dira baina distantzi luzeagoan. Horrezaz gain, eskian ibiltzea edota maratoian korritzea ere gustukoak ditut. Era guztietako eta distantzia ezberdinetako probak atsegin ditut.

-Noiztik praktikatzen duzu kirol mota hori?

Duela hamaika urte hasi nintzen. Donostiako triathloia izan zen nire lehen lasterketa, eta helburua, lasterketa hori bukatzea baino ez zen izan. Ondoren, Zarauzko eta Donibaneko triathloietan atera nintzen eta nire lehen Ironmana 1993.an egin nuen. Urte tik urtera distantzia gehituz eta lasterketa ezberdinetan parte hartuz ibili naiz.

-Zein entrenamendu mota egiten duzu? Janaria begiratu beharrik izaten al duzu?

Egunero entrenatu ohi dut. Duathloia prestatzeko kirol bat praktikatzen dut bi egunez behin astegunetan, eta asteburuetan berriz, biak. Triathloia prestatzeko bi kirola egiten

gintza bat ere egiten dut. Janariari dagokionez, ia egunero pasta jaten dut.

-Suitzan zer moduz ibili zara?

Uste baino hobeto ibili naiz. Munduko txapelketa zen eta bertan ateratzeko aurreko probetan sailkatu beharra zegoen. 8'5 kilometro korrika, 150 kilometro bizikletan eta 30 kilometro korrika egin behar ziren. Dauden duathloi lasterketatik gogorrena da. Entrenamenduetan ondo ibiliz gero, lasterketak gogorrak izan arren, nahikoa ondo ibili zintezke.

-Zein dira aurtengo edo etorkizunerako proiektuak?

Proiektu zehatzik ez dut. Era guztietako eta distantzia guztietako probak egitea dut helburu, eta beraz, egutegia eta proben araberako plangintza bat finkatzen joango naiz. Proba horiek egitera jotzen naizena oporrak hartzen ditut. Kirol horiek praktikatzea nire lanaren osagarri dira.



Xabin Mujika.

ditut egunero eta asteburuetan hirurak. Hala ere, proba baino hiru hila-bete lehenago entrenamendu serioak egiten ditut. Edozein kirola egiten duzula ere garrantzitsua da oso estiramenduak egitea eta lasterketen plan-

*Lerro hauen bitartez, andoaindar kirolari gazte guztiak zoriontzen ditugu.  
Zorionak lortu dituzuen emaitzengatik eta jarraitu horrela!*

**S T O P**  
**LIBURUDENDA**  
TESTU LIBURUAK  
AUKERA ZABALA LIBURUTAN  
(Ingelesez, frantsesez,  
italieraz...)  
Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

**KIROL JANTZIAK**  
**Litaura**  
Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47  
**ANDOAIN**

## Andoain

## Euskalduna futbol ekipoa. 1930-40



Zutik ezkerretik eskuinera: Miguel Huizi arbitroa, Emeterio Irazu, ezezaguna, ezezaguna, Lorenzo Galarza edo Elxebeste, ezezaguna, ezezaguna, Peruarena eta ezezaguna.

Makurtula ezkerretik eskuinera: Ignacio Arratibel, Cabino Urrutia, Roman Iñanue, Ramon Salazar eta Ricardo Canzarain.

1923. urtean egin zuten Euskaldunak egun oraindik jokatzen dueneko Elxeberrietako futbol zelaia. Donostiako Esperanza futbol ekipoak jokatzeke egin zuten zelai hori. Garaiko futbol ekiporik garrantzitsuenek jokatu zuten zelai horretan, garai hartan errejonat mailan jokatzen baitzuten futbolean. Futbol partiduak ikustera jende asko hurbiltzen zela esan digute, gainera.

Bazter guztiak nahastu ditugu argazki honetako futbolarien izen-abizenak eta informazio gehiago lortzeko. Bixente Huizi eta Joxe Eizmendiren artean lortu ditugu futbolari horietako batzuk nor diren argitzea, baina nahikoa duda ditugu, hala ere. Beraz, badakizue, zuek saiatu beharko duzue argazkiko izen-abizenak argitzen.

Oharra: Zuen argazki zaharrak Aiurri argitaratu nahi baldin baituzue dei ezazue 300732 telefonora argazkiaren kopia bat ateratzeko eta informazioa emateko. Eskerrik asko.

ASESORIA  
GESTORIA  
ASEGURUAU

**ALDAMA - TAPIA**

**KALITATEA ETA SEGURTASUNA!!**

Kaleberria 22

Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

— FERRETERIA

**GOROSTIDI**

— BURDINDEGIA

**SUKALDERAKO TRESNERIA**

Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN  
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

# Beterriko Liburua 1.997

*Aiurriren irakurle:*


Larramendi Bazkunak hasiera eman nahi dio 1997. urteko Beterriko Liburua aukeratzeko bideari. Horretarako, dagoeneko euskal literaturan argitaratu diren liburuen lehenengo uzta egin dugu eta gaurkoarekin batera hurrengo zenbakietan horien berri eman-go dizuegu. Erne, bada, hemendik aurrera, bada non aukeraturik eta!

## GAUAK ETA HIRIAK

*Ur Apalategi Idirin*



Elkar  
246 orr.  
1.900 pta.




EGILEA: Duela 24 urte jaio zen Parisen Ur Apalategi Idirin. Gurasoak, bata bizkaitarra eta bestea gipuzkoarra. Baionan Zuzenbideko Lizentziatura egin ondoren, Bordelera joan zen literatura ikastera. Literaturako doktoretza tesia egiten ari den bitartean bere lehen eleberria plazaratu du. Aurretik Unai Gaikaskoetxearekin batera *Erdi guneak* poesi liburua idatzi zuen. Ur Apalategik Maiatz aldizkarian ere idazten du.

GAIA: Bordelen, Baionan eta Donostian gertatzen da eleberriko triangulu sentimentala. Hiru gazte dira protagonista eta hiruen arteko adiskidantza eta maitasuneko harremanak kontaktzen ditu. Bere adineko ikasleen mundua, mentalitatea eta bizipenak azaldu nahi izan ditu egileak.

“Beste liburuetan aurkitzen ez dudana irakurtzeko helburuarekin egin dut *Gauak eta Hiriak*. Euskal literaturara irakurtzean ez nuen aurkitzen pertsonaiak errealistak edo sinesgarriak egingo zituen tonu hori, batzuek ziniko edo ironiko deitu diotena”.


Egunerokotasuna da eleberri honen markarik nagusia, Euskal Herriko literaturan hain gutxi azaltzen den egunerokotasuna hain zuzen. Egungo Euskal Herriaren zati ezberdinak aurki ditzake irakurleak. Literaturaz, politikaz, amodioaz, adiskidetasunaz, gazteez hitz egiten du liburuan zehar, eta denak azaletik aztertzen baditu ere, oso interesgarriak dira komentarioak. Eleberriak bere sarretan harrapatuko du irakurlea eta ondorioz irrikaz irakurriko du. Idazle gazte horren lehen eleberri dotore honek beste batzuen esperoan uzten gaitu, geroago eta hobeak, geroago eta interesgarriagoak izango dira, gainera, inolako dudarik gabe.

# Herriko txokoak



Hona hemen gure lehiaketa berria. Pertsonaia ezkutuaren orde, Beterriz Aiztondoko herri bateko txokoren bat agertuko da. Zuek zein herri eta zein txoko den asmatu beharko duzue. Txoko horietako batzuk ezagunak dira, beste batzuk ez hainbeste, baina badakigu herritar askok ezagutzen dituzten tokiak direla. Honako hau andoaindarrek gehiago ezagutzen dute ziurrenik. Zein txoko den ez baldin badakizu edota ziur ez bazaude, galdetu etxekoren bati. Animo eta zorte on!

Lehiaketako lehen saria Tolosako Puntuz Puntu dendak eskainiko du. Oparia, kojn polit bat egiteko hariak eta tresneria dira.



Zumalakarregi Etorbidea, 7  
20400 TOLOSA  
Tfna. 65 28 81

**ANTZERKIA****ZIZURKIL GOIA**

*Uztailak 18:* Hika taldearen "Hau komeria" antzezlan. Frontoian, gaueko 22:30etan.

**IKUSENTZUNEZKOAK****LARRAUL**

*Uztailak 7:* Javier Fernandez "Islandia" ikusentzunezkoen emanaldia. Kultur aretoan, arratsaldeko 19:00etan.

**IKASTAROAK****LARRAUL ETA ADUNA**

Igeriketa ikastaroak. Udako igeriketa ikastaroak: Larraulen, ekainaren 30tik uztailaren 11ra. Adunan, uztailaren 14tik 28ra. Izena emateko deitu 693930 telefonora goizean.

**IBILALDIAK****ANDOAIN**

*Ekainak 29:* Andoaingo Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Iramendira irteera.

**ERAKUSKETA****BILLABONA**

*Ekainaren 30etik uztailaren 4ra.* Gurea zinema areto-ko Erakusgelan arratsaldeko 8etatik 8etara. Gaia: 1977-97 bitartean Billabonan izan diren gertaerarik aipagarrienak. «Abialdian» taldeak antolatuta.

**RIKARDO ARREGI HEMEROTEKA**

Euskarazko aldizkari zaharrak biltzen ditugu hemerrotekako fondoa osatzeko: Anaitasuna, Zeruko Argia, Argia, Goiz Argi, etab. Informazio gehiago Larramendi Bazkuncan (Elixabete Jauregi edo Xabier Lasa), 300733 telefonora deiturik.

**OHARRA**

Zure iritzia Aiurrin argitaratu nahi baduzu, idatz ezazu 15-20 lerrotako gutuna eta bidali ezazu gure egoitzara. Hori bai, beharrezkoa da zure izen-abizenak, telefonoa eta N.A. zenbakia jartzea.

AIURRI aldizkaria  
Huizi doktoorea kalea 15-1esk.  
20.140 Andoain

**MERKATU TXIKIA**

**Pisua salgai Andoaingo Kaletxiki kalean.** 72 m2, sukaldea horniturik, egongela handia, 2 komuna, 3 gela altzariak barne. Ganbara eta garaje-plaza. Tfnoa: 300698 (gauetz deitu).

**Ordenagailua salgai.** Macintosh Classic ordenagailua eta inpresora salgai. Deitu 360389 telefonora.

**Mobil-home salgai.** Mobil-home bat saltzen dut bere terraza eta guzti. Errioxako Haro herrian dago. Tfnoa: (943) 7913969 (arratsaldez).

**Klase partikularrak:** Udaran zehar klase partikularrak emango nituzke lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleei eta administraritzako arloko ikasleei (LOGSE, BUP, REM, FP, Administraritzako). Oharra: Ikaslearen etxera joango nintzateke klaseak ematera (euskaraz edo erderaz). Tfnoa: 692028 (Arantza).

**Lanak ordenagailuz pasatzen dira.** Eskutitzak, olerkiak, idazlanak, grafikoak... Kolorez inprimatzeko aukera ere badago. Tfnoa: 692028 (Arantza).

**KOMIKIA**

G A N B A R A



T A B E R N A

Arteta Kalea 5-7 behe. ☎ 59 19 71

ANDOAIN

**Kontzertuak**

gaueko  
10etan

Ekainak 27 → Doktor Deslai Reggae

Uztailak 18 → Reggae Band "Xuia"

**andy**

diseinu  
grafikoa

logotipoak



kartelismoa



irudi  
tratamendua



imprimaketako  
teknikak



publizitatea

ilustrazioa



UGALDEA POLIGONOA 36 -1.USURBIL.Tifoa. 36 46 85

**fotocolor**

ERREBELATUA ORDU  
| EAN

Zure argazki  
denda



**Kodak**  
**EXPRESS**  
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE  
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32  
20.140 ANDOAIN

SEGURU AHOLKULARIAK  
ASESORES DE SEGUROS

  
**LEIZAUR**  
Tel y Fax: 30 06 08

 **CORLIDER**  
BROKER DE SEGUROS

**Hilero auto  
baten aseguruua  
zozketatzen  
dugu.**

➔ **Aseguroak**

- Jubilazioa
- Bizitza
- Aurrezkie

➔ **Orokorrak**

- ETEE (PYME)
- Enpresak
- Etxebizitzak

➔ **Istripuak**

- Gaisotasun edo  
istripuagatik  
eguneroko baja

➔ **Ibilgailuak**

- Kamioiak, motorrak  
eta, bereziki, auto-  
ak. %50a bitarteko  
beherapenak  
onartzen ditugu

SE HACEN RECURSOS DE  
MULTAS DE TRAFICO  
ALCOHOLEMIAS Y  
TACOGRAFO DE CAMIONES  
Y AUTOBUSES, INCLUIDAS  
Telefono 30 06 08 - 69 25 52

  
**LEIZAUR**

**ALBA**  
asegurua

Pío Baroja, z/g behea  
20 140 ANDOAIN  
Fax eta Tel. 943-30 06 08  
Pos. Ku. 111. 20150 BILLABONA